

PROBA ESPEZIFIKOA

2014ko PROBA

**ARTEAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2014ko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2014

HISTORIA DEL ARTE

Probaren iraupena: **ordubete**

Tiempo de duración de la prueba: **1 hora**

Probak bi atal ditu:

1. atala. Bi irudi eskaintzen dira, eta haietako bati iruzkina egin behar zaio. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

2. atala. Bi gai proposatzen dira, eta haietako bat garatu behar da. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

La prueba consta de dos cuestiones:

Cuestión 1: Se deberá comentar una única imagen de entre las dos que se ofrecen. Esta cuestión tendrá un valor de 5 puntos sobre 10.

Cuestión 2: Se desarrollará un único tema de entre los dos que se proponen. Esta cuestión tendrá un valor de 5 puntos sobre 10.

1. atala:

AZTERTU ETA IRUZKINDU BI IRUDI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

- Sailkatu obra, eta, horretarako, adierazi estiloa eta gutxi gorabehera noizkoa den.
- Egin obraren azterketa formala eta ikonografikoa.
- Azaldu ezazu, laburki, obra hau egin zen garaiko testuinguru historiko-artistikoa.

Cuestión 1:

ANALIZA Y COMENTA UNA DE ENTRE ESTAS DOS IMÁGENES: (5 puntos).

- Clasifica la obra señalando estilo y cronología aproximada.
- Realiza un análisis formal e iconográfico de la obra.
- Analiza brevemente el contexto histórico-artístico en el que fue realizada.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2014ko MAIATZA


ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2014

HISTORIA DEL ARTE

A)



B)





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2014ko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2014

HISTORIA DEL ARTE

2. atala:

PROPOSATZEN ZAIZKIZUN BI GAI HAUEN ARTETIK BAT GARATU BEHAR DUZU: (5 puntu).

A.- Arkitektura erromanikoa. Erromesentzako elizak eta monasterioak.

B.- Abstrakzioaren hasiera: Kandinsky.

Cuestión 2:

DESARROLLA UN TEMA DE ENTRE LOS DOS QUE SE PROPONEN A CONTINUACIÓN: (5 puntos).

A.- Arquitectura Románica. Las iglesias de peregrinación y los monasterios

B.- El inicio de la abstracción: Kandinsky



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2014ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2014

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

ORIENTABIDE GISAKO EBAZPENA

1. atala:

A)

Titulua: Hermes Dionisiorekin

Egilea: Praxiteles

Garaia: K.a. IV. mendea

Estiloa: Eskultura klasiko grekoa.

Eskultura bakartu bat da. Marmolez egina dago, baina kopia bat da; originala, garai horretako eskultura askotan gertatu den bezala, galdu egin da. Harria leundua dago; obran, gizonen anatomiaren eta Grezia klasikoko edertasunaren idealaren azterketa garrantzitsu bat nabari da.

Ikusten da irudiak praxitelestar kurba duela: ezker-oina pixka bat goratua dago, eskuin-aldakaren pisua eramaten du eta gorputz-enborra berriro ezkererantz okertzen du. S formako eskema da; haren emaitza atsedene- edo nagikeria-jarrera bat da, eta contrapposto fenomenoaren eratzeko du. (...)

Irudi honek giza gorputzaren biluztasuna sinbolizatzen du, sentsualitatea jarreran, atseginzaletasuna, erotismoa. Edertasun absolutua irudikatzen du. (...)

B)

Milá etxea edo Gaudíren La Pedrera.

Irudiak "Casa Milá o de la Pedrera" izenekoaren fatxada nagusia erakusten du. Antoni Gaudí i Cornet (1852-1926) arkitektoak eraiki zuen, eta Bartzelonako Grazia pasealekuaren 92.lean dago. Etxearen proiektuak 1905eko data du, eta lanak 1910ean amaitu ziren.

Etxea, etxebizitzaz osatua, Bartzelonako Zabalgunekeko izkina batean kokatuta dago, Grazia pasealekuaren eta Provenza kalearen bidegurutzean. Egitura-konplexutasun handiko eraikitze-sistema du, ez baitu karga-hormarik; eraikin osoa harrizko edo adreiluzko zutabeen gainean bermatuta dago, eta bilbadura metalikoa du.

Desagertu egin da, beraz, estilo tradizionalerako fatxadaren kontzeptua. Eraikitzeko, igeltsuzko maketak egiten ziren zenbait eskalatan. Solairu bakoitza desberdina da; fatxadak eta patioetako itxiturak dira horma bakarrak. Fatxada egiteko, Garrafeko harria erabili zen behealdean, eta Vilafrancakoa goialdean, ale lodikoa, leundu gabea. Fatxada ez da estaldura bat, baizik eta elkarren gainean jarritako portikoen egitura bat, bere buruari eusteko gai litzatekeena; harriaren landatutako burdinazko habe bidez lotuta dago eraikinaren gainerakoari. (...)



2. atala:

Arkitektura erromanikoa. Erromesentzako elizak eta monasterioak

Erromanikoa Mendebaldeko kulturaren lehen nazioarteko estiloa izan zen, kristautasunak kulturalki lotutako Europa baten arte-adierazpena.

Ukaezina da erromatar eraginak dituela; haietatik eratorri da erromaniko kontzeptua, baina baditu beste eragin batzuk ere: paleokristauak, bizantziarrak, prerromanikoak eta baita islamikoak ere. Haren aurrekariei eta jatorriari buruz, askotariko iritziak daude: Frantziako arte karolingioa, Alemaniako arte otondarra, Italiako lombardiarra edo Asturiasko prerromanikoa Espainian, baina haietako batek ere ez zuen "asmatu". Pixkanaka sortu zen, eta toki horietan guztietan aldi berean gertatu zen.

Arkitektura da erromanikoaren ekarpen nagusia; eskultura eta pintura haren mende daude.

Arkitektura erromanikoaren ia elementu guztiak (harlanduzko hormak, zutabeak eta pilareak, arku biribilak, kanoi-gangak) aurreko estiloetan ere aurkitu daitezke, baina, orain, espiritu berri batez ageri dira: garrantzitsuago da espazioan duten balioa haien itxura formala baino.

Eraikin gehienak erlijiosoak dira: elizak, katedralak eta monasterioak. Hala ere, badira eraikin zibilak ere: hiri-jauregiak eta, batez ere, gazteluak. (...)

B.- Abstrakzioaren hasiera: Kandinsky

Kolorea askatzeak eta forma geometrikoen indarrak bidea zabaldu zieten pintura abstraktuaren abangoardiei. Esan liteke Kandinsky asmatzailea, sortzailea, izan zela; pintura erabat abstraktu bat egin zuen lehena izan zen. (...)

Zalantzarik gabe, Kandinskyren obraren alderdirik ezagunena pintura irudikapenetik aldentzen den prozesuan parte hartzea da, hau da, arte abstraktua agertzea. Arte horretan, koadroak jada ez du balio planoan, forma eta koloreak erabiliz, hiru dimentsioko espazio bateko pertsona eta objektuen irudipena sortzeko. Aitzitik, kanpo-munduan ez dauden formak aurkezten ditu; ikusten dugunetik abiatuta antzeratutako objektu eta formak gogorarazten ez dizkiguten kolore eta trazuen konposizioak dira.

Prozesu hori argi eta garbi ageri da Kandinskyren XX. mendearen hasierako pinturretan; haietan, koloreak eta kolore-konbinazioak, orbanak, forma geometrikoak, trazuak, konposizioa protagonismo handiagoa hartuz joaten dira gaiak baino. (...)



ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Galdera bakoitzaren ondoan, dagokion puntuazioa ageri da, 10 puntu osatu arte.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Irizpide orokorra

Kontuan hartuko dira erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea, hiztegiaren kalitatea eta hizkuntza-zuzentasuna.

Irizpide espezifikoak

- Artelanak beren testuinguruan aztertzen eta interpretatzen ditu, diziplinaren hiztegi espezifikoa zuzen erabiliz.
- Arte-hizkuntza zorrotz interpretatzen du (formak, gaiak eta esanahiak).
- Zenbait tokitako obra adierazgarriak alderatzen ditu, haien arteko aldeak, antzekotasunak eta harremanak nabaritzen.
- Gaiak tratatzeko aldaketa eta arteari elkartutako erabilera eta funtzio berrien eragina deskribatzen ditu.
- Artearen historiari buruzko gai teoriko bat modu egokian garatzen du.

GALDEREN ETA CURRICULUMAREN ARTEKO ERLAZIOA

GALDERA	IKASKUNTZA-UNITATEA
1A	2. blokea
1B	2. blokea
2A	2. blokea
2B	2. blokea